

ANTOLATZAILEA:



AYUNTAMIENTO
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN
UDALA
AGENCIA DE EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL
ENPLEGU ETA HERRIAREN GARAPENERAKO
AGENTZIA

LAGUNTZAILEA:



VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO HERRITARREK LANBIDE HEZIKETA IKASTEKO ENPRESA-BEKEN VIII. PROGRAMA (2019 EKITALDIA) BEKAK EMATEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Udala, berriro ere, gazte langabeen birziklatze, eguneratze eta laneratzean lagundu dezaketen ekimen guztien buru jarri da. Izan ere, langabe horien gaztetasuna dela eta ikasketak izan daitezkeelako haien lan berri batean hoberantz egiteko modu bat.

Horrela, bada, laguntza edo beka horiek 30 urtetik beherako gazteentzat dira eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak bultzatzea dute helburu, hori guztia, gure udalerriko erakunde ekonomiko eta lantegirik esanguratsuenen lankidetzaren bidez.

LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

Gazte langabeek, langabezia lehen mailan nozitzen dutenez gero, merkatuak eskatzen dituen espezialitateetan prestatu beharko dira eta Lehen eta Bigarren Mailako Zikloetako graduazioak eskuratu beharko dituzte.

Erakunde ekonomikoak profesional berri ugari eskatuko dituzte, behar bezala prestatuak eta ikasiak. Hori dela eta, hautaketa neketsua eta zaila izango da.

Beste alde batetik, beka horiek erakargarriak izan beharko dira gazteek eskaera daukan lanbide bat ikas dezaten eta bekaren zenbatekoak bermatu egin beharko du oinarrizko gastuak estaliko dituela, narriotuta egon litekeen etxeko ekonomia gehiago kaltetu gabe.

ONURADUNAK

Beka horien onuradunak izan daitezke, 2019ko ekainaren 30ean 30 urtetik beherakoak diren gazteak, Valle de Trápaga-Trápagan Udalean gutxienez eta etengabe 2019ko ekainaren 30ez geroztik erroldatuta badaude, eta azken ikasturteko batez besteko puntuazioa, Prestakuntza Zikloa egitea eta beka jasotzea ahalbideratuko diona, gutxienez 'nahiko' bada.

ZENBATEKOA

Beken diru-kopurua honakoa izango da:

- **800 €** ikasturteko, **Erdi Mailako** Heziketa Ziklo batentzat.
- **1.000 €** ikasturteko, **Goi Mailako** Heziketa Ziklo batentzat.

ORDAINKETA

Dagokion beka esleituta, haren zenbatekoa era honetara ordainduko da:

- 2019ko urria / azaroan eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko erregistro Orokorrean aurkeztu ondoren Prestakuntza Zentroaren ziurtagiria, non esango baita %50eko asistentzia izan duela heziketa zikloan, zeinarentzat beka eskatu duen.
- Ikasturte amaieran gainerako %50 ordainduko da, Valle de Trápaga-Trapagarango Erregistro Orokorrean aurkeztu ondoren irakasgai guztiak gainditu dituela ziurtatzen duen espediente akademikoa.

Agiri hau aurkezteko gehieneko epea ez da izango 30 egun baino gehiagokoa, heziketa-zentroak kalifikazioak eman dituen egunetik kontatzen hasita. Hala egin ezean galdu egingo litzateke %50eko bigarren zati hori jasotzeko eskubidea.

Ikasleak ez balu gutxienez ikasturte osoa gaindituko, ez luke eskuratuko aurreikusitako bigarren %50. Hala ere, lehenengo ordainketaldiko zatia beretzat izango litzateke, interesdunak izan duen ikasteko asmoaren sari gisa.

EMANGO DEN BEKA KOPURUA

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloa: 2**
 - Espezialitateak:
 - ✓ Galdaragintza eta Soldadurako Teknikaria 1
 - ✓ Jantzigintza eta Moda 1

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa: 19**

Espezialitateak:

- ✓ Automozioa 3
- ✓ Automatizazioa eta Robotika Industrialia 1
- ✓ Elektrizitatea - Elektronika 3
- ✓ Patroigintza eta Moda 1
- ✓ Mekatronika Industrialia 1

Zehaztu gabeko prestakuntza espezialitatea: 10

FINANTZIAZIOA

Enpresa jarduera multzo bat da, hiru elementu hauek osatzen dutena: lan-esku produktiboa- zuzendaritza teknikoa- kapital enpresariala.

Uztarketa hori goitik behera ulertu dute VII. Beka Programa hau osorik finantziatzen duten enpresa hauek:

Erakunde babesleak:

- AMAZON
- CECOTRANS-BIZ, S. COOP.
- ELECTRIFICACIONES RADIMER, S.L.
- TALLERES ALJU, S.L.
- GAIMAZ, S.A.
- CNC, S.A. (GRUPO NAVACEL)
- DE MIGUEL TALDEA, S.L.
- ENVISER SERVICIOS MEDIO AMBIENTALES, S.A.
- ORTZADAR, S.L.

BATERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Deskribatu diren bekak bateragarriak izango dira beste erakunde eta administrazioetatik jaso daitezkeenekin.

ESKAERAK ETA AGIRIAK

Eskaera egiteko, **I Eranskina** erabiliko da eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da **2019ko uztailaren 15etik 30era** (goizeko 9:00etatik 13:00etara), honako agiriekin batera:

- Nota-buletina, heziketa zikloa egitea ahalbideratuko duten azken ikasturtea egin duen hezkuntza zentroak emana.
- Beka eskatu den ikasturtea burutuko den Lanbide Heziketako zentroak emandako matrikula-orriaren fotokopia.
- 2018 urteko Errentaren Aitorpenaren fotokopia, banakakoak edo kolektiboak, non agertuko baitira beka-eskatzaillearen zuzeneko familia-unitateko kide guztiak.

Halakorik ez ezean, eskuraturiko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten organismo edo erakundeen ziurtagiria eta Lan-bizitza, hori guztia 2018 urteari eta eskatzaillearen zuzeneko familia-unitateko kide guztiei dagokienean.

- Eskatzaillearen NANaren fotokopia (eta aitarena edo legezko tutorearena adingabekoa bada)

Eskaerak, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipaturiko administrazio publikoen erregistroetan ere aurkeztu daitezke.

Eskaera ez badago bere termino guztietan beteta edo ez bazaizkio nahitaezko agiriak erantsi, eskatzailari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo eskatutako agiriak eransteko, eta ohartarazioko zaio, hala egin ezean, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta eskaera horri buruzko berariazko ebazpena eman eta jakinaraziko da.

HAUTAGAIK AUKERATZEA

Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaera guztiak ebaluatuko dira banan banan. Horretarako Batzorde bat eratuko da udalak izendaturiko udal ordezkari batekin eta programa honetarako diru-laguntza ematen duten enpresa bakoitzeko ordezkari batekin. Erabakiak gehienengo soilaz hartuko dira.

BAREMAZIOA

Gehienez atera daitekeen puntuazioa 40 puntukoa da, horietatik %50 espediente akademikoaren arabera emango dira eta gainerako %50 familiaren sarreren arabera.

Honako puntuak emango dira Erdi eta Goi mailako Heziketa Zikloak egiteko behar den azken ikasturtean lortutako kalifikazio akademikoari dagokienean, hau da, DBH edo Batxilerreko batez besteko nota, honako baremazioaren arabera:

- 10eko bikain kalifikazioa: 20 puntu.
- 9ko bikain kalifikazioa: 18 puntu.
- 8ko oso ongi kalifikazioa: 16 puntu.
- 7ko oso ongi kalifikazioa: 14 puntu.
- 6ko ongi kalifikazioa: 12 puntu.
- 5eko nahiko kalifikazioa: 10 puntu

Emateko beka baino beka-eskaera gutxiago egongo balitz, gutxienezko baldintza gisa ezarriko da aurreko ikasturtea gaingaituta edukitzea.

Honako puntuak emango dira honakoen bidez egiaztatzen diren sarrerei buruz:

- 2018 urteko Errentaren Aitorpenaren fotokopia, banakakoak edo kolektiboak, non agertuko baitira beka-eskatzailearen zuzeneko familia-unitateko kide guztiak.
- Halakorik ez ezean, eskuraturiko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten organismo edo erakundeen ziurtagiria eta Lan-bizitza, hori guztia 2018 urteari eta eskatzailearen zuzeneko familia-unitateko kide guztiei dagokienean.

Familia-unitate hartuko da guraso eta seme-alabek –odolekoak zein ezkontzazkoak– osatutakoa, beraz, ez dira kontuan hartuko aitite-amamam, ilobak, izeko-osabak, eta abar.

Honako baremazioaren arabera:

Familia-unitatearen sarrerak	Puntuazioa
Sarrerak <8.000 euro	20
>8.001<10.000 euro	18
>10.001 <15.000 euro	16
>15.001<20.000 euro	14
>20.001<25.000 euro	12
>25.001<30.000 euro	10
>30.001 euro	5

Lortutako orotarako puntuazioan berdinketa gertatuz gero, lehentasuna hurrenkera honetan ezarriko da:

- Familia unitatearen sarreraren kontzeptuan puntuaziorik gehien ateratuena.
- Eskatzailearen gazteena (horretarako kontuan hartuko dira jaiotzaren urtea eta hilabetea, baina ez hilabeteko eguna).
- Kide baloragarri kopururik handiena duen familia-unitateko eskatzailea.
- Familia unitatearen barruan SBE kobratzen ari dena.
- Azkenik, zozketa publiko bat egingo da.

Pertsonaren batek beka bat baino gehiago eskatuko balu, beka jaso dezaketen ikasketaren baten baino gehiagotan matrikulatu delako, beka bat baino ez du jasoko, gainerako beka puntuaziorik gehien daukaten hurrengo eskatzaileei emango zaizkielarik.

BALDINTZA OROKORRAK

- A) Hautagaiek oinarri hauen edukia osorik eta bere horretan onartzen dute.
- B) Baliteke Hautapen Batzordeak eman gabe uztea, osorik edo partzialki, esleitzeko daukan beka.
- C) Batzorde ebaluatzaileak beka izapidetan eta ebazpenean gerta litezkeen gorabeherak ebatzi ditzake.

INFORMAZIOA

Informazio gehiagorako herri honetako udaleko Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziara jo daiteke (Maiatzaren Lehena, 1 behea). Telefonoa: 944863196

Valle de Trápaga-Trapagararen, 2019ko ekainaren 7an.

BABESLEAK:

